

TERMINOLOGIA BATZORDEAREN

JARDUKETA-PLANA (2003-2005)

Vitoria-Gasteiz, 2003ko apirilaren 1a

Terminologia-arloan egin beharreko lanak

Terminologia-arloan egin beharreko lanak

- 1. Terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea.....3. or.
- 2. Terminologia-lanean aplikatu beharreko irizpideak finkatzea.....4. or.
- 3. Terminologia-lanean aplikatu beharreko irizpideak argitaratzea eta zabaltzea..... 5. or.
- 4. Terminoen ponderazio-markak finkatzea.....6. or.
- 5. Lan-proposamenak (2003-2004-2005).....7-8. orr.
- 6. Terminologia-lanak zabaltzea eta gomendatzea.....9 or.
- 7. Erabiltzaileekiko harremanak eta gomendatutako terminologiaren ebaluazioa..... 10. or.

Eranskinak

- I. eranskina: Terminologiaren maila desberdinak.....12. or.
- II. eranskina: Irizpide linguistikoak.....13. or.
- III. eranskina: Irizpide terminologikoak.....14. or.
- IV eranskina: Irizpide soziolinguistikoak/pragmalinguistikoak.....15. or.
- V. eranskina: Maileguz eta kalkoen gaineko politika.....16-17

1. Terminologia-alarrean dauden lehentasunak finkatzea

Terminologia-alarrean dauden lehentasunak finkatzea

Deskribapena: teknolektoetan edo espezialitateko hizkeretan euskaraz egin beharreko lanak, dauden hutsuneak, aztertu beharreko erabileremuak eta horien artean dauden premiak eta lehentasunak detektatu behar dira.

Proposamena: Aurrerantzean oso garrantzitsua izango da, batetik, irakaskuntzan —bereziki lanbide-heziketan eta unibertsitate-mailan— erabili beharreko terminologia aztertzea, finkatzea eta normalizatzea bai eta teknologia berriekin zer ikusia duen terminologia ere. Izan ere, benetako erabiltzaile estrategikoak arlo horietan daude eta egongo dira. Oso interesgarria litzateke, baita ere, hizkuntza-paisaian agertzen den terminologia finkatzea eta normalizatzea, hain zuzen ere, errepideetako errotuluetakoa, toki publikoetako karteletakoa eta produktuen eta tresnen etiketetakoa, jatetxeen menuetakoa...

Oharrak:

Data: 2003ko urria

2. Terminologia-lanean aplikatu beharreko irizpideak finkatzea

Terminologia-lanerako irizpideak finkatzea

Deskribapena: terminologia-lana behar bezala egiteko, eta bereziki normalizazioari begira, nahitaezkoa da irizpideak finkatzea eta modu sistematikoan aplikatzea, normalizatzaileen subjektibotasunari ahalik eta lekurik txikiena utzirik. Terminoak onartzeko, baztertzeko eta termino berriak (neonimoak) sortzeko eta batez ere erabakien koherentzia mantentzeko, irizpide zehatzak eta ondo oinarrituak definitu eta idatziz eman behar dira. Dena den, nozioak aldatu eta egokitzen diren neurrian irizpideok ere aldatu beharko dira. Terminoak normalizatzeko orduan maila desberdinak hartu behar dira kontuan (ikus I. Eranskina).

Hona terminologiaren teoria orokorrak ematen duen termino idealaren definizioa:

- Monosemikoa (termino bat→kontzeptu bat)
- Unibokoa (terminoa ↔kontzeptua)
- Erreferentzia bakarrekoa
- Espezialitate-eremu batekoa
- Motibatua (motibazio semantikoa)
- Eratorpenerako aukera ematen duena
- Konnotaziorik gabea
- Laburra eta gardena

Proposamena:

Honako **irizpide** hauek finkatzea:

- Irizpide linguistikoak (ikus II. eranskina)
- Irizpide terminologikoak (ikus III. eranskina)
- Irizpide soziolinguistikoak/pragmalinguistikoak (ikus IV. eranskina).

2. Neologia-sorkuntza:

1. Eratorpena (euskaraz oso baliabide emankorra): aurrizkien eta atzizkien erabilera zehatza eta bereiztua aztertu eta finkatu behar da terminologian aplikatzeko.
 2. Hitz-elkarketa (oso erabilia): baliabide honen mugak aztertu eta kasu desberdinak sailkatu behar dira; adjektibo erreferentzialak nola eman ...
 3. **Maileguen eta kalkoen** gaineko politika (ikus V. Eranskina)
 4. **Normalizazio-txostenaren** eredia diseinatzea (arazoak sortarazten dituzten terminoen kasuan)
 5. Euskarazko terminologian dauden **arazoen inbentarioa** egitea (denboran zehar osatuz joan).
- Oharra:** aipatutako irizpideak eta termino berriak sortzeko bidean gainean Terminologia Batzordeak prestatuko dituen txostenak Euskaltzaindiari helaraziko zaizkio eta oniritzia eskatu zaio.

Data: 2003ko azaroa

3. Terminologia-lanean aplikatu beharreko irizpideak argitaratzea eta zabaltzea

Deskribapena: aurreko fitxan azaldutako lanak argitaratu, paperezko formatuan zein sarearen bidez.

Proposamena:

Oharra:

Data: 2004ko otsaila

4. Terminoen ponderazio-markak finkatzea

Deskribapena: terminoen fidagarritasunari buruzko informazioa ematea du helburu. Horrela, erabiltzaileek terminoak aukeratzeko orduan kontuan izan beharko dute informazio hori.

Proposamena:

0. Baztertu beharreko terminoa (Terminologia Batzordeak onartzen ez duena)
1. Termino erabilia (aztertu gabea baina besterik ezean erabiltzen dena)
2. Termino proposatua (baina oraindik T. Batzordeak normalizatu gabea)
3. Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)
4. Termino normalizatua/gomendatua

Oharra:

Data: 2003ko maiatza/ekaina

5. Lan-proposamenak (2003-2004-2005)

Deskribapena: finkatutako lehentasunen arabera erabakiko da zelako eremuak landu behar diren eta lan horiek enkargatu egingo dira.

Proposamena: 2003ko ekitaldian honako lan hauek egingo dira:

- Merkataritza-alorra (ostalaritza): **"Jatetxe, taberna eta kafetegietako hiztegia"** (euskara, gaztelania eta frantsesa): alor horretako establezimenduen jabeentzako hiztegi erabilgarria, bereziki euskarazko menuak, kartaz eta bezeroentzako mezuak prestatzeko. EUSKALTERMen txertatzeaz batera, paperezko eta CD-ROM formatuetan zabaltzea interesgarria litzateke erabiltzaileei helarazteko.
- Fabrikazio mekanikoaren alorra: **"Zenbakizko kontrolaren hiztegia"** (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa): lanbide-heziketako eta unibertsitateetako irakasle nahiz ikasleentzako erabilgarriak bai eta eremuko enpresentzat ere. EUSKALTERMen txertatzeaz batera, paperezko eta CD-ROM formatuetan zabaltzea interesgarria litzateke erabiltzaileei helarazteko.
- Informatika-alorra: **"Bulegotikako hiztegia"** (testu-tratamendua, dokumentuak trukatea...), hiztegi eleaniztuna (euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa): lanbide-heziketako eta unibertsitateetako irakasle zein ikasleentzako erabilgarria bai eta eremuko enpresa publiko zein pribatuentzat era. EUSKALTERMen txertatzeaz batera, paperezko eta CD-ROM formatuetan zabaltzea interesgarria litzateke erabiltzaileei helarazteko.
- **"Laburtzapenen hiztegia"** (laburdurak, siglak, akronimoak, ikurrak eguneratu eta osatu, egun, EUSKALTERMen daudenak). EUSKALTERMen txertatuko dira kontsulta berezia antolatuz, eta, horretaz gain paperezko formatuan ere argitaratuko da?
- **"Europar Batasunaren glosarioa"**. *
- **"Toki-administrazioko oinarrizko hiztegia"**. *
- **"Lurralde-antolamenduaren glosarioa"**. *
- **Osasunaren Munduko Erakundeak (WHO) ezintasun, ezgaitasun eta gaixotasunen sailkapena berrikusi eta ezintasun/ezgaitasunen inguruan kontzeptualizazio berria proposatu du, mundu osoan irizpide berak erabil daitezkeen osasun zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen arteko muga-mugan izaten diren egoerak baloratzeko garaian. Sailkapen berria euskaraz edukitzea garrantzitsua delakoan, Jaurlaritzak, EUDLEk eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek WHOri baimena eskatu diote sailkapen hori euskaraz jarri eta argitaratzeko.**

* (Azken egitasmo horiek proiektu zabalagoen baitan daude kokatuta: oinarrizko testuen itzulpena edota eguneratzea, e.a. Zabalkundea web bidez egingo da edota paperean argitaratuko dira).

Oharra: lantzen den eremuaren arabera adituen laguntza teknikoa bilatuko da.

Data: 2003ko abendua

6. Lan-proposamenak (2003-2004-2005)

Proposamena :

2004-2005eko ekitaldietan honako eremu hauek aurreikusten dira (dena den, azterketa zehatzak egin beharko dira):

- **Hizkuntza-paisaia:** ekonomi jardueren terminologia (zapata-denda...), errepideetako errotiluak (desvío por obras, con lluvia conducir con precaución...), garraio publikoetako mezuak, toki publikoetako kartelak eta errotiluak... eta horien zabalkundea egin.

- **Lanbide-heziketa** (enpresa-mundua): teknologia mekanikoa, trokelaketa, makina-erreminta...

- **Informatika alorra:** teknologia berriak (hizkuntzen teknologiak...)

- **Artea:** EAEn museoek hartu duten garrantzia dela eta, komeniko litzateke arlo horretako terminologia normalizatzea.

- **Herri-administrazioen kontratazioa:** eskaera handia dago administrazio guztietatik. Horrela, Herri-administrazioen Kontratuen Legea itzuliko da, hainbat kontratazio-eredu landuko dira (pleguak, eta abar).

- **Neologismoen hiztegia:** Terminologia Batzordeak normalizatutako terminoen hiztegitxoa, beharrezko informazioaz hornitua: erabileremua, definizioa, sinonimoak, beste hizkuntzetako baliokideak...

- **Liburuen katalogazioa** egiteko oinarritzko lanabesa da gaien edo, nahiago bada, gaiburuen zerrenda normalizatua edukitzea, liburuzainak bere eskuetara iristen zaion edozein liburu erraz sailkatu ahal izan dezan.

Katalogazioa euskaraz era normalizatuan egin ahal izateko ezinbestekoa da gaiburuen sailkapen estandarizatu bat edukitzea.

Lan arlo horretan diharduten zenbaitek (Azkue liburutegiak, zenbait liburutegi publikok, Joana Albret liburuzainen mintegiak...) behin baino gehiagotan aldarrikatu dute gaien zerrenda egokirik ezak sortu ohi dien arazoa.

Oharra: lantzen den eremuaren arabera adituen laguntza teknikoa bilatuko da

Data: 2004-2005

7. Terminologia-lanak zabaltzea eta gomendatzea

Deskribapena:

Terminologia Batzordeak onetsitako lanak erabiltzaile estrategikoengana iritsaraztea.

Proposamena:

- Beti EUSKALTERMen bidez, biderik azkarrena eta eraginkorrena delako.
- Paperezko formatuan nahiz CD edota beste euskarri batzuetan, hala erabakiz gero.
- Kartelak, foiletoak eta zabalkunde masiboa egiteko erabiltzen diren bestelako formatuak.

- ...

Oharra: Zabalkunde masiboa egiten denean gutun batekin batera bidali beharko da onetsitako terminologia erabiltzeko gomendio formala eginez.

Data: etengabe, hala dagokionean

8. Erabiltzaileekiko harremanak eta gomendatutako terminologiaren ebaluazioa

Deskribapena:

Terminologiaren erabiltzaileen harreman-bideak zehaztea beharrezkoa da:

- Terminologia-alorrean dauden premiak detektatzeko eta lehentasunak ezartzeko.
- Finkatutako terminologia behar bezala zabaltzeko, hau da, erabiltzaile estrategikoengana iritsarazteko, erabiltzeko gomendio formala eginez.
- Gomendatutako terminologiaren aurrean terminologia-erabiltzaileek duten jarrera eta erreakzioak ezagutzeko.
- Erabiltzaileek gomendatutako terminoak onartzen ez dituztenean, beste termino batzuk proposatzeko.

Proposamena:

- Galdetegiak prestatu eta erabiltzaileen eskuetan jarri (espreski bidaliak edota EUSKALTERMEN bertan jarritakoak).
- Terminoen erabileraren jarraipena egiteko azterketa zehatzak eta puntualak egin.

Oharra: urtean bitan egin

Data: etengabe

ERANSKINAK

I. eranskina

Terminologiaren maila desberdinak

Irizpideak aplikatzeko orduan, oso garrantzitsua litzateke erabileremuetako terminologia maila desberdinetan sailkatzea:

- **Zientzia eta teknologietako terminologia**, nazioartean oso antzekoa dena: elektroteknika, elektronika, industriaren mekanika, bioteknologia...
- Gure **terminologia tradizionala** (arrantza, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza...), ondoko erdarekin bat ez datorrena eta, hein batean, hizkuntzaren altxorra izanik, mantendu eta baloratu beharko litzatekeena.
- **Hizkuntza arruntetik ateratako terminologia**: elikagaiak, jantziak, etxebizitza.
- Maileguak eta maileguekin batera izendatzen duten errealitatea dela eta, **modu masiboan sartzen den terminologia**, adibidez jatetxeetako menuak¹.
- Azkenik, **Administrazio eta Zuzenbide arloa** geldituko litzateke, tratamendu eta irizpide bereziak behar dituena, euskararen kasuan behinik behin, gaztelaniarekiko eta frantsesarekiko morrontzagatik, hain zuzen (*servitude*).

¹ Hemen, erabakia hartu beharko da: esku hartzea ala ez. Egia da asko erabiltzen diren formak aldatzea zaila dela (euskara diglosia-egoeran egotearen ondorio) baina, hain zuzen ere, horregatik arreta berezia eskaini beharko zaio arlo horri, bestela ekar lezakeen ondorioa hiztunen hizkuntza-gaitasuna izugarri pobretzea da, egunero erabiltzen diren hizkuntza-formak direlako eta hizkuntza-paisaian daudelako. Adibidez, "langostinoak ala otarrainxkak", "hostorea ala hojaldrea? Euskarazko baliokideak jasotzen ditu Hiztegi Batuak baina ez dira ulergarriak erabiltzaileentzat eta, ondorioz, jatetxe askotako menuetan maileguak azaltzen dira. Kasu horietan oso garrantzitsua izango da termino horiek ongi gizarteratzea eta horrekin batera erabiltzeko gomendioa, izan ere, horien erabileraren baitan izango da hizkuntza aberastea edo pobretzea; gainera, Hegoaldeko euskaldunek zein Iparraldekoek ulertuko dituzte (irizpide soziolinguistikoa).

II. eranskina

Irizpide linguistikoak

Irizpide linguistikoen oinarrian Hiztegi Batuan aplikatutako irizpideak jarriko dira, bereziki Hiztegi Batuaren 2. itzulirako Euskaltzaindiak prestatutakoak. Horiezaz gain, honako hauek ere aipatuko ditugu:

- Terminoak hizkuntzaren sistema linguistikoaren (morfologikoaren eta fonologikoaren) araberakoak izan beharko dira.
- Hizkuntzaren sisteman integratzeko gaitasuna izan behar dute, bai eta berengandik forma eratorriak eta horien sailak (familiak) sortzeko bidea eman ere.
- Hizkuntzaren diskurtsoan (syntaxian) integratzeko gaitasuna izan behar dute.
- Hizkuntzaren erabilera instituzionalaren kontrako forma desegokiak edo akastunak baztertu behar dira.
- Nahastea sortzen duten forma lehiakideak mugatu eta zehaztu behar dira, anbiguitasuna saihesteko.

Irizpide linguistikoak direla eta, azken hitza Euskaltzaindiarena da; beraz, zalantzak Euskaltzaindiari helaraziko zaizkio. Dena den, hainbat kasutan gerta daiteke hizkuntza arrunterako hartutako erabakiek terminologian aplikatzeko orduan arazoak ematea eta, ondorioz, terminologiarako irizpidea gehiago zehaztu behar izatea.

III. eranskina

Irizpide terminologikoak

- Espezialitate-eremu bakoitzaren (kimika, botanika...) izendapen-sistemak baditu bere arau propioak eta arau horiei begiratu behar zaie eremu batean terminoak onartzeko orduan.
- Euskaraz erabilitako eta ondo funtzionatu duten ereduen araberrako terminoak onargarriak dira.
- Termino bat dokumentu askotan eta desberdinetan sarritan aurkitu izana bada arrazoa terminoa onartzeko (batasuneko irizpide orokorrekin bat datorren neurrian).
- Termino bat normalizatzeko kontuan izan behar da dagokion kontzeptu- eta izendapen-sistema.

IV. eranskina

Irizpide soziolinguistikoak/pragmalinguistikoak

- Terminoak erabiltzaileen artean ezarpen-maila altua badu ez da aldatu behar, pisuzko arrazoirik ezean eta termino berriak finkatzeko aukerarik ez balu.
- Termino bat onargarri da eremuko adituek ontzat emanaz gero.
- Erabiltzaileen artean arrakasta izateko aukera gutxi duten terminoak arbuiatu behar dira.
- Konnotazio negatiboak dituzten terminoak baztertu behar dira.
- Terminoak ikasteko eta erabiltzeko errazak izan behar dira.
- Erreferentzia-hizkuntzak eta erreferentzia-kulturak bi izanik (gaztelania eta frantsesa), erabileremuaren arabera, bi eremu geografikoetan arrakasta izateko moduko terminoak finkatuko dira.

Oro har, kontuan izan behar da hizkuntza-komunitateko erabiltzaileen jarrera zeren eta komunitatea izango baita terminoak onartu edo baztertuko dituen.

Oharra: aipatutako irizpideak osatu eta zehaztu behar dira, bai eta adibidez hornitu ere, terminologia-lana egingo dutenei erreferentzia argiak eta garbiak emate aldera.

V. eranskina

Maileguen eta kalkoen gaineko politika²

Euskaltzaindiak 1986an emandako arauak (*Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakia*) gehi Hiztegi Batuko 2. itzulirako emandakoak oinarri harturik, mailegu eta kalkoen gaineko politika definitu beharko du Terminologia Batzordeak. Horretarako, besteak beste, honako hauek finkatu beharko lituzke politika horrek:

- 1) Maileguen politikaren printzipio orokorrak
- 2) Maileguak onartzeko eta hizkuntzan txertatzeko irizpideak
- 3) Maileguak baztertzeko irizpideak
- 4) Inolako esku-hartzerik behar ez duten maileguak

1. Maileguen politikaren printzipio orokorrak:

- a) Arauak eman behar dira erabaki ahal izateko noiz onartu edo noiz baztertu mailegu bat baina, aldi berean, mailegua ordeztzeko proposamenak egin behar dira, hizkuntzaren autonomia sustatze aldera. (Adibidez: herbiboro ala belar-jale?)
- b) Mailegu-politika era desberdinean aplika daiteke hizkuntza estandarrean eta teknolektoetan.
- c) Mailegua eta kalkoa erabili beharko lirakeke bakar-bakarrik euskaraz izendapenik ez duten errealitateak izendatzeko.
- d) Mailegua eta kalkoa errealitate berriak izendatzeko baliabideak dira; dena den, beren erabilera ez da sustatu behar, hizkuntzak dituen bestelako baliabideen (eratorpena, elkarketa, zabalkuntza semantikoa eta abarren) kaltetan.
- e) Mailegua erraz txertatu behar da hizkuntzaren egitura morfologikoan, sintaktikoan eta fonologikoan; gainera emankorra izan behar da, hau da, eratorpenerako eta elkarketarako bidea eman behar du.
- f) Mailegu bat edo kalko bat onartzeko edo arbuiatzeko, berau osatzen duten hitzak edo elementuak hartuko dira aintzakotzat. Printzipioz, mailegu sintaktikoak eta fonetikoak baztertu beharko lirakeke.
- g) Mailegu bat onartzeko edo baztertzeko, kontuan izan behar dira hizkuntzaren morrontzak (Zuzenbide arloa, esaterako), hizkuntza-komunitatearen ezaugarri soziolinguistikoak eta nazioarteko komunikazio-beharrak.
- h) Mailegu bat edo kalko bat onartzeko edo arbuiatzeko, hizkuntza arruntaren erabilerari erreparatu behar zaio, hau da, ikusi behar da mailegu edo kalko hori zein neurritan dagoen zabaldurik eta, ondorioz, hizkuntzan txertaturik dagoen eta noiztik.

Maileguak onartzeko eta hizkuntzan txertatzeko irizpideak

Maileguak onartzeko eta hizkuntzan txertatzeko irizpideak: Euskaltzaindiak Hiztegi Batuaren 2. itzulirako honi buruz finkatutako ez gain, honako hauek:

- a) Hizkuntzaren hutsunea betetzera datozen maileguak eta euskaratik sortutako neologismo baten bidez ordeztetik ez badago.
- b) Hizkuntzaren sistema ortografikoan eta fonetikoan ondo integratzen diren maileguak.
- c) Hizkuntzaren izaerara/formara erraz egokitzen direnak.
- d) Latinetik eta grekeratik sortutakoak direnak eta nazioartekoak badira.
- e) Isolaturik hartutako maileguak, hau da mailegatutako hizkuntzan eratorririk ez dutenak, horrek ez baitakar eremu semantikoa aldarazteko arriskurik.

² Katalanaren kasuan Termcateko Consell Supervisorrek hainbat dokumentu argitaratu du neologia-sorkuntzaren inguruan: *Manlleus i calcs lingüístics en els treballs de terminologia catalana*; *Formació del plural del manlleus*; *Guia d'establiment de criteris per a la denominación catalana d'animals*; eta *Formació de termes amb elements cultes*.

- f) Hizkuntza arruntean txertaturik dauden maileguak eta emankorrak izan direnak, hau da eratorriak edo esanahi desberdinak sortarazi dituztenak.
- g) Mailegu zaharrak edo hizkuntza arruntean oso hedaturik daudenak.
- h) Espezialitateko hizkuntzetan txertaturik dauden maileguak eta eratorriak eman dituztenak.
- i) Espezialite-eremu baten barruan polisemia ezabatzea helburua duten maileguak.

Horretaz gain, mailegua onartzen den kasuetan nola txertatu hizkuntzan finkatu beharko da, hau da, grafia egokituta edo egokitu gabe. Hainbat kasutan ere, nola ahoskatu finkatu beharko da, bereziki ingelesetik zuzenean hartutakoetan.

Maileguak baztertzeko irizpideak

- a) Hizkuntza arruntean erabilitako maileguak baina hizkuntza arrunteko formei alferreko lehia egiten dietenak.
- b) Espezialitateko eremuetan erabiltzen diren euskarazko terminoentzat alferreko lehia diren terminoak.
- c) Integrazio ortografiko eta fonetiko zaila duten maileguak, bai eta homografoak eta homofonoak sortarazi ditzaketenak.
- d) Mailegu berriak, euskarazko neologismoek erraz ordezkatu ditzaketenak.
- e) Atzetik kanpoko forma gehiago dakarten maileguak eta, ondorioz, eremu semantikoko lexiko-sorkuntza eragozten dutenak.

Inolako esku-hartzerik behar ez duten maileguak

- a) Atzerriko beste kultura bateko errealitatea izendatzen duten maileguak.
- b) Euskara arruntean txertatutako maileguak, argitaratutako hiztegi gehienetan agertzen direnak.
- c) Hizkuntzan aspaldian txertatutako maileguak eta kultura-errealitate zehatzak izendatzen dituztenak.
- d) Pasatzen diren modek ekarritako maileguak.

Oharra: aipatutako irizpideak osatu eta zehaztu behar dira, bai eta adibidez hornitu ere, terminologia-lana egingo dutenei erreferentzia argiak eta garbiak emate aldera.